



## Aurkibidea

|   |           |
|---|-----------|
| <b>SARRERA</b>  | <b>3</b>  |
| <u>1. artikulua. Militanteak, izena eman dutenak eta jarraitzaileak</u>   | 5         |
| <u>2. artikulua. Zirkuluaren definizioa</u>   | 7         |
| <u>3. artikulua. Zirkulu motak</u>  | 8         |
| <u>4. artikulua. Funtzionamendurako printzipio orokorrak</u>  | 9         |
| <u>5. artikulua. Eraketa eta parte hartzeko baldintzak</u>  | 10        |
| <u>6. artikulua. Zirkulu bat desegitea</u>  | 11        |
| <u>7. artikulua. Sektoreko Zirkuluak: helburuak, funtzionamendua eta eskumenak</u>                                | 11        |
| <u>8. artikulua. Udal handiak.</u>  | 12        |
| <u>9. artikulua. Herritarren Udal Batzarra</u>  | 12        |
| <u>10. artikulua. Osoko bilkura</u>   | 13        |
| <u>11. artikulua. Herritarren Udal Kontseilua</u>   | 14        |
| <u>12. artikulua. Udal-bozeramaileak</u>  | 15        |
| <u>13. artikulua. Definizioa, helburuak eta osaera</u>  | 16        |
| <u>17. artikulua. Herritarren Batzarra: definizioa, funtzioak eta deialdia</u>                                    | 16        |
| <u>18. artikulua. Nafarroako Herritarren Kontseilua: definizioa, funtzioak eta deialdia</u>                       | 18        |
| <u>19. artikulua. Nafarroako koordinazioa</u>   | 20        |
| <u>20. artikulua. Koordinazio Kontseilua</u>  | 21        |
| <u>21. artikulua. Kargu organikoen balio gabetzea</u>   | 21        |
| <u>27. artikulua. Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea: definizioa, osaera, funtzioak eta funtzionamendua</u> | 23        |
| <u>28. artikulua. Kontu politikoak eta sozialak emateko elementuak</u>  | 25        |
| <u>29. artikulua. Aurrekontu ekonomikoa eta finantza-kontuak ematea</u>   | 26        |
| <u>30. artikulua. 1. fasea. Azterketa eta lehenengo ekintzak</u>  | 27        |
| <u>31. artikulua. 2. fasea. Agintaldiaren bigarren hiruhilekoa</u>  | 28        |
| <u>32. artikulua. 3. fasea. Normalkuntza</u>  | 28        |
| 29. artikulua. Aurrekontu ekonomikoa eta finantza-kontuak ematea.....   | 31        |
| <b>10. titulua. Xedapen iragankorrak.....</b>   | <b>32</b> |
| 30. artikulua. 1. fasea. Azterketa eta lehenengo ekintzak.....  | 32        |
| 31. artikulua. 2. fasea. Agintaldiaren bigarren hiruhilekoa.....  | 33        |
| 32. artikulua. 3. Fasea. Normalkuntza.....  | 33        |

# SARRERA

Egitura sendoa aurkezten dugu hemen, eraginkortasunera bideratua. Zailtasunak aurreikusi eta irtenbideak proposatzen dira, eta esanahia ematen zaie ordezkaritza-funtzioei eta karguei, Ahal Duguren **talde proiektuari eta proiektu horizontalari** begira betiere.

**Militantziari**, haren esperientziari eta konpromisoari egindako **aitortza** bat aurkezten dugu. Militantziaren QR Kodean oinarritutako gaitasun berriekin saritu behar dira militanteak, eta konfiantza eduki behar da haien ahalduntze sendoan; horrekin batera, **migratzaileak** eta arrazakeriagatik baztertuak gure erabaki-organoetan **sartuko dira**, eta, horrela, Ahal Duguren konpromiso soziala egiaztatuko da.

Erakunde horizontal bat aurkezten dugu, buruzagirik gabea, **bozeramaileekin** baizik, eta **taldean ahalegintzen** eta **laguntzen** duten pertsonekin, ekintzara, gizarte bizia lortzera eta gizarte-mugimenduetara bideratuak.

**Gure organoen kudeaketa egokia**, zirkuluak eta izena emana dutenak **babestuko** dituen arau multzo bat aurkezten dugu: Ahal Duguren proiektuarekiko erantzukizuna eta konpromisoa indartuko du alderdi barruan zein kanpoan, taldeetatik Herritarren Kontseilura bitarteko komunikazioa, bi noranzkoko, bilatuko du, eta bertatik Foru Erakundeetara iritsiko da, **Ahal Duguren proiektuarekiko leial**.


Baina, batez ere, **sortu egin behar dugu, hazi egin behar dugu**, eta, umiltasunez, gizartearen konfiantza berreskuratu behar dugu, adostasunean oinarritutako erabaki-metodoen bitartez; **analitikoak** eta kritikoak izan behar dugu, lan-plangintzak osatu behar ditugu eta kontuak eman behar ditugu eta erakundeari eman behar dizkiogu gainerako dokumentuak praktikara eramateko osagaiak: **Politikoa, Feminismoak eta LGTBIQA+, eta Arrazismoaren aurkakoa**.

## ***DOKUMENTUEN KOHERENTZIARI ETA TRAZABILITATEARI BURUZKO OHARRA***

Okerrik edo omisiorik ezean, dokumentu honek Estatuko Herritarren Bosgarren Batzarrak (aurrerantzean V-EHB) onartutakoa betetzen du, eta Nafarroako Foru Erkidegoko Ahal Duguren errealitate espezifikora egokitua du edukia. Nafarroako Ahal Duguren dokumentuak behar bezala interpretatzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan: V-EHBren agiriak, horiei lotutako erregelamendu eta protokoloak (indarrean daudenak), horien eratorri aplikagarriak, eta horien ordezkari izan daitezkeen guztiak, Nafarroan onartzen direnak eta <https://podemos.info/documentos/> webgunean eta etorkizunean Nafarroako Ahal Duguren webgunean argitaratuko direnak.

Nafarroa

1. titulua. Alderdiaren egitura orokorra



## **2. titulua. Ahal Duguko kide izateari buruz**

Ahal Duguren militantzia da erakundearen oinarriari eutsi diona, bai iraganean bai gaur egun ere. Hortaz, inoiz baino gehiago, militantziak jarraitu behar du protagonista izaten gure erakundearen orainean eta etorkizunean. Haren eskura jarriko ditugu gure baliabide guztiak, haren ahotsak merezi duen oihartzuna izan dezan, ahaldundu dadin eta politika egin dezan, eta erakundeak bere lurraldean jarraituko duen ildo politikoa taxutuko dugu eta etorkizun komuna eraiki.

Izena eman duten pertsona eta militante guztiak hartuko dira alderdiko kideetat.

Kide izateko eta parte hartzeko moduak behar bezala kudeatzeko, errolda bat egongo da, eta Estatuko Antolaketa Idazkaritzak kudeatuko du.

Lurralde barruan hazteko eta finkatzeko balioko duen errolda lortzeko ahalegina egingo da.

## **1. artikulua. Militanteak, izena eman dutenak eta jarraitzaileak**

Militante dira beren lurralde-eremukiko zirkulu bati edo sektore-zirkulu bati atxikitako pertsona guztiak, baldin eta nortasuna dagokien nortasun-agiriaren bitartez egiaztatu badute eta ezartzen den militantzia-kuota ordainduta badute (araudiaren arabera salbuespenak salbu), bai eta erakundearekiko dagokion beste edozein finantza-betebehar ere.

Ondorio praktikoetarako, militantetzat hartuko dira aldizkako ekarpen ekonomikoren bat egiten dutenak eta, beraz, zirkuluko bilera batean botoa izan dezaketenak, edo Nafarroako Herritarren Kontseiluaren bilera batean egon daitezkeenak eta, amaieran, galderak egin ditzaketenak, webguneko profileko QR kodearekin identifikatu ondoren.

Era berean, urteko kopuru sinbolikoa ordaintzea eragozten dieten prekarietate ekonomikoko egoera dutela egiaztatzen dutenak ere militantetzat hartuko dira; egoera hori dokumentu bidez frogatu beharko dute urtez urte.

Nafarroako Ahal Duguk militantziaren funtzioa lehenetsiko du; hala, aukera emango zaie Herritarren Kontseiluaren eztabaidetan egoteko eta amaieran zalantzak edo galderak egiteko.

Nafarroako militanteek eskubidea edukiko dute:

- Alderdiaren jardura guztietan eta gobernu- eta ordezkari-organoeetan parte hartzeko, eta, orobat, Estatuko

## Nafarroa

eta Nafarroako Herritarren Batzarretan parte hartzeko eta boto-eskubidea gauzatzeko.

- Dagokien Zirkuluan eta udalerrian parte hartzeko, hitz egiteko zein botoa emateko.
- Tokiko zuzendaritza, udal-bozeramailetzak eta tokiko gainerako organoak hautatzeko, Zirkuluen bitartez.
- Hautesle eta hautagai izateko Ahal Duguren karguetan, araudiekin bat eginez.
- Ahal Duguren jardueretan kolaboratzaile gisa parte hartzeko, boluntario gisa, araudiak dionarekin bat.
- Ezartzen diren organo guztietara jotzeko, dagozkion eskubideak babestu daitezzen eskatzeko.

Talde politikoak eta tematikoak.

- Nafarroako Herritarren Kontseiluaren deliberamenduetan eta erabakietan parte hartzeko eta entzuteak izateko, araudian ezartzen denaren arabera.

**Izena eman dutenak** dira izena borondatez eman duten guztiak; horien nortasuna dagokion nortasun-agiriaren bitartez egiaztatu ahal izango da.

**Izena eman dutenek** eskubide hauek izango dituzte:

- Alderdiaren jardueretan eta gobernu- eta ordezkaritza-organoetan parte hartzeko, eta orobat parte hartzeko Herritarren Batzarrean eta bertan boto-eskubidea gauzatzeko.
- Ahal Duguren karguetarako hautesle izateko, araudietan adierazten denaren arabera.
- Kolaboratzaile gisa parte hartzeko Ahal Duguren jardueretan, boluntario gisa, araudietan adierazten denaren arabera.
- Ezartzen diren organoetara jotzeko, bere eskubideak babestu daitezzen.

**Jarraitzailezat** hartzen dira militanteak edo izena emanak izan gabe ere Ahal Duguren proiektu politikoarekin bat egiten dutenak. Jarraitzaile izateko dagokion erregistroan eman beharko dute izena eta gonbidapenak eta ekitaldiei, bilerei edo alderdiaren beste edozein jarduerari buruzko informazioa jasotzeko onarpena eman beharko dute.

**Alderdiko kideen** betebeharrak izango dira:

- Kode Etikoa izenpetzea, betetzea eta betearaztea.
- Ahal Duguren helburuak partekatzea eta horiek bete daitezzen lan egitea. Ahal den neurrian, demokraziaren

## Nafarroa

funtzionamendua esparru sozial eta politiko guztietan hobetu dadin laguntzea.

- Agiri hauetan adierazitakoa errespetatzea: estatutu hauek, Herritarren Batzarrak onartutako dokumentuak, horiek garatzen dituzten araudiak, Araudia Betetzeko Plana, dagozkion organoen eta zirkuluen araudiak, idazkaritzek, alorrek eta taldeek betetzen dituzten funtzioetan aplikatzekoak diren protokoloak.
- Alderdiaren organoek onartutako akordioak ontzat hartzea, betetzea eta defendatzea.
- Ahal Duguko alderdikideen eta organoen barne- eta kanpo-adierazpenak errespetatzea.
- Estatutuetan eta bertako legeetan adierazitakoa errespetatzea.
- Ez izatea beste alderdi edo koalizioetako kidea edo militantea, edo beste erakunde politiko batekoa.

Ahal Duguko kide batek Ahal Duguren primarioetan barne-prozesu baten ondoren **kargu publiko** bat lortzen badu, honako betebeharrak izango ditu:

- Legegintzako koalizioen edo Parlamentuko Taldeen egituretan parte hartzea soilik, eta erakundearen esparruaren barruan baino ez, eta Nafarroako Herritarren Kontseiluak aurretik balioztatu gabe betebeharririk ez hartzea.
- Nafarroako Gobernuan parte-hartzeari uko egitea gutxiengo argian egonik, eta ez hartzea izendapen askeko posturik exekutiboaren barruan edo enpresa publikoetan, postu horiek foru hauteskundeetako prozesuaren aurreko 6 hilabeteetan lortu direnean izan ezik edo postu horrek Ahal Dugun izena eman baino lehen hasitako ibilbide profesionalaren jarduera naturalaren arabera denean izan ezik.
- Ezkerren gobernu bat sustatzea Foru Parlamentutik, betearazlearen barruan parte hartu gabe, legealdirako akordioak eta/edo unean uneko akordioak eginez, baldin eta harreman zuzena badute Ahal Duguren proiektu politikoarekin eta haren hauteskunde-programarekin, legealdiko ekimen bakoitzean, edo parlamentuari dagokion politikan.
- Ahal Duguren proiektu politikoaren nortasunari eta ahotsari eustea % 100ean erakundearen ekintzetan, nahiz eta parlamentuko taldea beste alderdi politiko batzuekin osatu edo koalizioan egon.

## Nafarroa

- Ahal Duguren eta herritarren aurrean beteko zela hitz emandako hauteskunde-programaren kudeaketari buruzko urteko kontuak aurkeztea, bereizirik.

**3. titulua. Parte-hartzea eta zirkuluak**

Aplikatzekoak dira honako dokumentu hauek eta **estatuaren esparruan** jasotako guztiak, edo Nafarroakoak, edo horien ordezkioak:

[Reglamento de nueva cuota para la militancia](#)

[Protocolo para la creación y activación de un Círculo](#)

[Reglamento de funcionamiento de los Círculos](#)

[Protocolo de constitución, funcionamiento y renovación de las Redes de Círculos](#)

[Reglamento de órganos municipales para el funcionamiento de plenarios y consejos de Círculos](#)

## 2. artikulua. Zirkuluaren definizioa

Zirkuluak borondatezko talde irekiak dira, eta bertan bat egiten dute demokrasiaren, duintasunaren eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako eraldaketa soziala nahi duten pertsonak.

Oinarritzko ekintza-unitatea dira Ahal Dugu erakunde demokratiko eta herrikoi gisa politikoki eta sozialki eraikitzeko, eta orobat dira militanteengandik eta herritarrengandik hurbilen dagoen maila.

Zirkuluak Ahal Duguren eguneroko ekintzaren oinarria dira, eta bertan bat egiten dute alderdiaren garapenean interesa duten militanteak lurraldearen eta/edo sektorearen esparrutik; beren eguneroko ekintzaren bitartez, giza eskubideetan jasotako anaitasun-, sororitate-, demokrazia- eta duintasun-printzipioetan oinarritutako eraldaketa sozialaren helburuak lortzeko estrategia politiko eta sozialerako ezinbestekoa den kapilaritatea garatu ahal izango da.

Azken batean, ekintza zuzenerako pentsatutako tresna bat dira, dagokien lurralde-eremutik eta garapen sektorialaren eremutik gertu.

Ahal Duguko militanteek lurralde-zirkuluren bati atxikita egon behar dute, eta, aldi berean, beren interesekoak diren sektore-zirkuluei atxiki ahal izango zaizkie.

Nafarroako zirkuluek, udal edo sektore mailakoek, honako hauek egin beharko dituzte urtero:

- **EBALUAZIOA ETA AZTERKETA**, gizartearen egoerarena, auzokoen mapeatzea eta udaleko herritarrek, edo talde prekarioetakoek, homogeneousko edo sektorialeko Nafarroan

## Nafarroa

- **epe laburrera** (urtebetera), **epe ertainera** (5 urtera) eta **epe luzera** (15 urtera) dituzten premien aurreikuspena.
- **LAN-PLANGINTZA** ebaluazioan eta azterketan hautemandako premiei buruz, adieraziz kalteak edo arriskuak; berehalako neurriak eta behin betikoak ezarriko dira, egoera modu planifikatuan, epearen arabera, leheneratzeko edo arintzeko.
- **NORANZKO BIKO KOMUNIKAZIOA ETA SINERGIAK tokiko gizarte-mugimenduekin** eta goi mailagokoekin, modu egokian erabiliz Ahal Duguren estatu mailako zein beste lurraldeetako egiturak.
- **Kontuen** eta aurrekontuaren **balantzea aurkeztea**, halakorik balego edo diru-sarrerak edo gastuak aurreikusiko balira.

Zirkuluen sistematika:

- Bileren baten ondoren, 24 ordura, egoitzan utziko dute akordioei dagokien akta, edo postaz bidaliko dute SOAr, edo, bestela, alderdiak horretarako prestatutako web eremu batean gordeko dute.
- Zirkulu bakoitza gutxienez hiru hilabetez behin elkartuko da.

### 3. artikulua. Zirkulu motak

Erakundearen barruan hainbat zirkulu mota egongo dira:

**Udal-zirkulua:** lurraldeko zirkuluen artean udal-mailakoa da lehenetsia.

**Auzokoa:** arrazoi espezifikokoak, logistikoak eta pisuzkoak direla-eta (inoiz ez gatazka pertsonalei edo espazioaren kontrolari buruzkoak) udal-zirkulua barruti edo auzoetan banatzea behar den udaletan eratuko dira era honetakoak.

**Eskualdekoa:** eskualdeko zirkuluak lurralde-hedapenerako tresna gisa antolatuko dira, baldin eta despopulazio-arrazoiengatik edo lurraldea egituratzeagatik behar hori argudiatzen bada. Zirkulu horiek ezin izango dira, inoiz, 50 militantetik gorakoak izan, eta Osoko Bilkura baten gisara funtzionatuko dute, hartzen dituzten udalerrietan tokiko ekimen politikoak onartuz edo baztertuz, hala badagokio. Zirkulu horietan inguruko arazo komunak landuko dira.

**Zirkulu eragilea:** egitura-baldintzak betetzeko gaitasun txikia duten udal-zirkulu txiki eta hurbiletako militanteak bilduko dituzten zirkuluak eratu ahal izango dira; udal handiaren inguruko udal txikietako jarduera militantea indartzen dute, zirkulu nagusian bildutako talde militantearen laguntza solidarioari eta ibiltariari esker. Horrela, egitura txikiko udalerri horietan militantzia

## Nafarroa

hazten lagunduko da, hurbileko militantziaren laguntzari esker. Adibide gisa, egokia litzateke Iruñerako eta haren udalerrri mugakideetarako, edo Tuterarako eta Ebroko Erribera inguruko udalerrietarako; izan ere, biztanle-dentsitate handia duten arren, militantzia sakabanatuta dago.

**Sektorialak:** Ahal Dugurentzat garrantzitsuak diren alderdi tematiko, sektorial edo programatikoetan interesa duten pertsonak zirkulu sektorialak eratu ahal izango dituzte. Horiek parte-hartze aktiboa izango dute beren eremuko alderdi programatikoaren inguruan, eta izena emandako pertsonen, ordezkari organiko eta publikoen eta gizarte zibilaren arteko eztabaidarako tresna izango dira. Zirkulu sektorialen jarduera lortura duten arloek edo idazkaritzek koordinatuko dute.

## 4. artikulua. Funtzionamendurako printzipio orokorrak

Zirkuluak eguneroko elkarbizitza-espazioak direnez, bertan gauzatu behar dira gure erakundearen balioak eta printzipioak:

- **EZTABAIDA, ELKARRIZKETA ETA KONTSENTSUA:** Ahal Dugun funtsezkoa da eztabaida eta ideien trukea askotariko iritziak dauden testuinguruetan, eta, horren ondoren, militantziaren borondate politikoak bateratzeko aukera emango duten sintesietara eta kontsentsuetara iristeko ahalegin kolektiboa; erabakiak hartzeko azken mekanismoa proposamenen bozka izango da.
- **DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA:** zirkuluetan ordezkaritza-mekanismoak eta izena emandako pertsonak eta militantzia ordezkatzeko dituzten organoak daude, baina herritarren ahalduntzean sinesten dugu, eta, ondorioz, demokrazia parte-hartzailearen formulen aldeko apustua egiten dugu. Formula horietan, Ahal Duguren militantziak parte-hartze eta protagonismo handiagoa hartzen du erabakiak hartzeko eta finkatzeko orduan.
- **PAREKIDETASUNA:** alderdi feminista bat gara, eta, ondorioz, genero-berdintasuna aplikatzen dugu; horrela islatzen da gure organo eta hautaketa-prozesu guztietan, eta organo eta zerrenden % 50 gutxienez emakumez osatuta egongo dela bermatuko da beti.
- **TALDE-LANA:** bakarrik ezin dugu, taldean bai. Proiektu kolektibo baten aldeko apustua egin dugu, eta, orobat, herrialde hobea eraikitzeko indarrak batzen dituzten berdinen artean gauzak elkarrekin egiteak ematen duen indarraren aldekoa.

## Nafarroa

- **KONTZILIAZIOA ETA PLANGINTZA:** badakigu denbora izatea kontu zaila dela, eta denbora hori gure errealitatea eraldatzera bideratzeak ahalegin handia eskatzen duela. Horregatik, gure ekintza politikoa antolatzean, lehenetsuna emango diegu besteen zaintzari, kontziliazioari eta denboraren errespetuari, eta, beraz, denborak kontrolatzeari, deialdiak aurreratzeari eta, oro har, parte-hartze politikoa eta bizitza bateragarri egingo dituen plangintzari.
- **MIGRATZAILEEN ORDEZKARITZA:** Arrazakeriaren Aurkako gure Dokumentuak ezartzen duen bezala, migratzailearen ordezkartzaren printzipioa bete behar dugu, eta bermatu behar dugu beti errespetatuko dela organoen eta zerrenden % 18 gutxienez migratzaileez osatuta egotea.

## 5. artikulua. Eraketa eta parte hartzeko baldintzak

Zirkuluak gutxienez 3 militanteren ekimenez eratu ahal izango dira, Estatuko Herritarren Kontseiluak onartutako Zirkuluen Araudiak ezartzen dituen betekizunen eta prozeduren arabera; edonola ere, bat etorri beharko dute antolaketa-dokumentu honetan ezarritako zirkulu-motekin.

Ezin izango da Zirkulu bat baino gehiago egon lurralde edo sektore bereko eremuan. Zirkulu bat eratzeko interesa duen edozein militantek sustatu ahal izango du hura eratzeko edo bultzatzeko lehen bilera, erakundearen babesarekin eta Nafarroako Zirkuluen eta Antolaketa Idazkaritzaren bidez; horiek bultzatuko dute horien antolamendua, deialdia eta zabalkundea, Zirkulu berriaren lurralde-eremuko militanteen, izena emana dutenen eta jarraitzaile guztien artean. Lehenengo bilera horretan, helburu batzuk, lanerako plan bat, gutxienez bi (2) pertsonako kontseilu sustatzaile bat eta gehienez bost (5) pertsonako kontseilu sustatzaile bat proposatu beharko dira. Kontseilu horrek bere gain hartuko du zirkulua dinamizatze eta bultzatzeko zeregina, eratzeko denetik oinarritzko egiturak aukeratzeko prozesuak egiten diren arte, antolamendu-dokumentu honen arabera; horrez gainera, zirkuluko bi (2) lotura izendatuko dira, dagokion udalaz gaindiko edo sektoreen arteko egituraren txertatzeko. Eratze-bilera horren akta Nafarroako Antolakuntza Idazkaritzara eta Zirkuluen Idazkaritzetara eta Estatuko Zirkuluen Idazkaritzara bidali beharko da.

Zirkulu bat eskubide osokotzat har dadin eta Ahal Duguren egitura organikoan txertatu dadin, «aktibo» izendapena eduki beharko du, Estatuko Herritarren Kontseiluak onartutako Zirkuluen Erregelamenduaren arabera.

## Nafarroa

Aktibazio hori Nafarroako Herritarren Kontseiluak zehaztuko du, Estatuko Herritarren Kontseiluarekin koordinatuta, dagokion arloaren edo idazkaritzaren bidez.

Zirkulua aktibatzen denean Zirkuluen Estatuko Erroldan sartuko da, Zirkuluen Estatuko Idazkaritzak kudeatuta. Estatus horrek bi urteko iraupena izango du, eta, ondoren, berritu edo [desegin](#) beharko da.

## 6. artikulua. Zirkulu bat desegitea

Mugimenduaren batzar bidezko errealitatearen ondoriozko bilakaerak Zirkuluak desegitea eragin dezake, zenbaitetan. Prozesu hori Zirkuluen Araudian bertan egongo da araututa.

Zirkulua desegiten bada, eten egingo da alderdiaren esparru organikoetan eta erabaki-guneetan parte-hartzeko aukera, bai eta hautagai-zerrendetarako bermeen arloan Zirkuluari lotutako eskubide guztiak ere. Gainera, Zirkuluen Estatuko Erroldatik ezabatuko da.

Desegitea Nafarroako erreferentziazko Herritarren Kontseiluak zehaztuko du, Estatuko Herritarren Kontseiluarekin koordinatuta, dagokion arloaren edo idazkaritzaren bidez.

## 7. artikulua. Sektoreko Zirkuluak: helburuak, funtzionamendua eta eskumenak

Ahal Dugurentzat garrantzitsuak diren alderdi tematikoetan eta/edo sektorialetan interesa duten pertsonak zirkulu sektorialak edo tematikoak eratu ahal izango dituzte.

Zirkulu sektorialek parte-hartze aktiboa izango dute beren espezialitateko alderdi programatikoetan, eta eztabaida irekiko tresna izango dira izena emana dutenen, militanteen, ordezkari organiko eta publikoen eta gizarte zibilaren artean.

Zirkulu sektorialak Herritarren Kontseiluekin eta Herritarren Batzarrekin harremanetan jartzeko formulak eta zirkulu sektorialen funtzionamendua **Zirkuluen Araudian** xedatutakora egokituko dira.

Zirkulu Sektorialek Ahal Dugu alderdiaren izaera irekiari eta demokratikoari jarraitzen diote, alderdiaren gainerako espazioen antzera. Horregatik, izena emana duen edonork parte hartu ahal izango du, baldin eta bere prestakuntza eta esperientzia tematikoa edo sektoriala proiektuaren zerbitzura jarri nahi badu.

Honako hauek dira Ahal Duguren Zirkuluen helburuak eta funtzioak:

- **Sektoreko erakundeekin hitz egitea:** Ahal Duguren helburu orokorrak partekatzen dituzten gizarte-mugimenduen, gizarte zibileko erakunde eta eragileen eta subjektu partikularren eskaerak eta nahiak egituratzea eta bideratzea, horiek guztiak gizarte-jarduerako, jarduera publikoko edo instituzionaleko proposamen bihurtzeko helburuarekin.
- **Lanketa programatikoa:** Ahal Duguren organo politikoei berariazko eduki profesionalak eta orientabide teknikoak ematea; horretarako, estrategiak, ekimenak eta programak adieraziko dira, bakoitzaren lan-eremuaren funtzionamenduari eta ezaugarri zehatzei buruzko ezagutza espezializatuetan oinarrituta, eta, horrela, informazioa edukita eta irizpide arrazional eta teknikoki bideragarriei egokituta hartu ahal izango dira erabaki politikoak.
- **Ekintza politikoa:** zuzenean esku hartzeko eta gizartea eraldatzeko planak, proiektuak eta jarduerak bultzatzea.
- **Prestakuntza:** Ahal Duguren batzar eta topaketetan parte hartzea, sentsibilizaziora, ezagutzaren hedapenera eta talde-jarduerako proposamenetara bideratutako eztabaidak bultzatuz, bereziki dagokion eremuari buruzko gai sektorialetan eta zeharkakoetan.

#### **4. titulua. Udal mailari buruz**

Ahal Duguren udal maila da auzoen eta herrien errealitatearekin eta, azken batean, herritarren eguneroko bizitzarekin erakundeak duen loturarik garrantzitsuena.

Maila horretan sartzen dira Udal Zirkuluak eta Auzo Zirkuluak, Ahal Duguren ekintza politikoa beste eragile politiko batzuekin eta gizarte zibilarekin indartzeko funtsezko pieza baitira.

Ahal Duguren militanteek hartzen dute beren gain udal-eremuan erakundea garatzeko eta bultzatzeko konpromisoa eta erantzukizuna, eta, beraz, funtsezko zeregina dute lan militantearen garapenean eta erabaki politikoak hartzeari dagokionean.

Honako hauek dira udal-organoak:

- Herritarren Udal Batzarra: udalean izena eman duten pertsonak.
- Osoko bilkura: militantziak osatua.
- Herritarren Udal Kontseilua: Ahal Dugun izena emana dutenen eta militanteen ordezkari-organoa, bai eta osoko bilkuren eta batzarren arteko erabakiak hartzen dituena.
- Udal Bozeramaila.

## 8. artikulua. Udal handiak.

200.000 biztanletik gorako udalak, eta/edo probintziako hiriburu direnak, "Udal Handi" izendapena hartzeko proposatu **ahal izango ditu** dagokion lurraldeko Nafarroako Erakundearen Idazkaritzak eta Estatu Erakundearen Idazkaritzak onartuko ditu.

Udal Handiek Herritarren Udal Kontseilu bat edukiko dute eta Herritarren Udal Batzarrean izena emana duten pertsonak udal bozeramailetzen eta dagozkien Herritarren Udal Kontseiluen % 50aren hautaketan parte hartu ahal izango dute. Gainera, kontuan hartuko dira, beren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, Ahal Duguren prozesuetan. Berariazko araudi bat osatuko da, Estatuko Herritar Kontseiluak onartua.

## 9. artikulua. Herritarren Udal Batzarra

Herritarren Udal Batzarra udalean izena emana dutenek osatua da. Herritarren Udal Batzarrak eskumen hauek edukiko ditu:

- Araudiekin bat etorriz eta primario irekien bidez, dagokion lurralde-eremuan kargu publikoak lortzeko hauteskunde-zerrenda onartzea.
- Partaidetza bidez osatutako hauteskunde-programa (dagokion lurralde-eremukoa) onartzea, lurralde-eremu handiagoko batzarretan ezarritako esparru-irizpideak errespetatuz betiere.
- Dagokion lurralde-eremuko ordezkaritza-erakundeetarako hauteskunde aurreko edo hauteskunde osteko edozein itun edo aliantza, gobernu-itunak edo inbestidura-itunak berrestea edo errefusatzea, goragoko lurralde-ordenako batzarrek onartutako printzipio orokorrekin bat eginez.
- "Udal Handien" kategoriako zirkuluetan udal-bozeramailetza aukeratzea eta baliogabetzea, antolamendu-dokumentu honen eta Estatuko Herritarren Kontseiluak onartutako araudiaren arabera.
- Herritarren Udal Kontseiluko kideen ehunekoa aukeratzea eta ezeztatzea, Zirkuluko militantziak hautatutako % izan ezik, genero-irizpideen arabera zuzendutako zerrenda irekien sistema baten bidez (emakumeak gutxienez % 50 izango direla bermatzeko) eta migratzaileen ordezkaritza-sistema bidez (migratzaileak gutxienez % 18 izango direla bermatzeko), "udal handien" kategoria duten udalerrietan, antolamendu-dokumentu honen arabera.

Herritarren Udal Batzarra bere eskumenekoak eta lurralde-mailakoak diren gaietarako deituko dute zuzendaritzako

## Nafarroa

toki-organoek edo, halakorik ezean, goragoko mailako edozein organok, betiere Estatuko Herritarren Kontseiluak onartutako araudi batean ezarritako prozeduraren arabera eta lurralde-eremu handiagoko esparru-irizpideekin bat etorriz.

## 10. artikulua. Osoko bilkura

Osoko bilkura udalerrri bateko militantzia osoak osatzen du. Udalerrrian taldeko erabaki politikoetarako eta militanteen ekintza politikoari dagokion lanaren antolamendurako gune nagusia da. Orobat, horixe da herritarrek Ahal Dugura sartzeko duten lehenengo atea. Beraz, garrantzi handiko eremua da; ondo zaindu behar da, eta bertan egin behar da nagusiki eta lehentasunez zirkuluko jarduera parte-hartzailea.

Zirkuluko eskubide osoko militantzia militanteen eroldan jasoko da.

Auzoko zirkuluak dituzten udalerrri handietan, osoko bilkurak udalekoak nahiz auzokoak izan litezke.

Zirkuluen osoko bilkuren funtzionamendua Zirkuluen Funtzionamendu Araudian onartutakora egokituko da.

Osoko Bilkurak honako eskumen hauek izango ditu:

- Militantziak Osoko Bilkuran bertan onartutako ildo politikoa bultzatzea, Ahal Duguren ildo estrategiko orokorrekin bat etorriz betiere.
- Urteko lan-plangintza onartzea.
- Herritarren Udal Kontseilua osatuko dutenak izendatzea eta ordezkatzeta. "Udal handien" kasuan, araudiek definitu eta militantziak aukeratutako Udal Herritarren Kontseiluaren %. Udalerriko hauteskunde-prozesuetan parte hartzeko modu politikoari buruzko erabakia hartzea, goragoko lurralde-eremuko batzarretan ezarritako esparru-irizpideak errespetatuz.
- Herritarren Udal Kontseiluak (balego) edo, halakorik ezean, udal-bozeramaileak edo Osoko Bilkurak berak aurkeztutako urteko aurrekontu-proposamenak onartzea edo baztertzea.
- Udal Bozeramailea eta Udal Herritarren Kontseilua hautatzeko edo baliogabetzeko prozesua antolatzea, hala badagokio, "udal handi" izendapena ez duten zirkuluetan.

## 11. artikulua. Herritarren Udal Kontseilua

Herritarren Udal Kontseilua da Ahal Duguk bere udalerrian duen zuzendaritza politikoa eztabaidatu, erabaki eta gauzaten duen

## Nafarroa

organoa, Herritarren Udal Batzarren eta Osoko Bilkuren artean, horietan onartutakoaren eta Ahal Duguren ildo estrategiko orokorraren arabera. Eredu hori da izena eman dutenen eta zirkuluko militanteen ordezkaria.

Herritarren Udal Kontseilua gogoetarako eta, aldi berean, exekutatzeko gunea izango da, eta izaera politikoko eta barne-koordinazioko eguneroko zereginak beteko ditu. Kontseiluko kideek beren bilera-eremuko jarrera azaldu ahal izango dute, eta, horrela, eztabaida eta ekintza finkatu; baina, aldi berean, erabakitzeko autonomia izango dute.

Gutxienez hiru (3) eta gehienez hamabost (15) kidek osatuko dute, udal-bozeramailearen proposamenez, hautaketan aurkeztutako antolaketa-dokumentuaren arabera.

Udalerri handien kasuan, dagokion Koordinazio Kontseiluak onartu ahal izango du Kontseiluaren osaera zabalagoa, baina gehienez ere hogeita bost (25) kide bitartekoa izango da; % 50 Herritarren Udal Batzarrak aukeratuko du, eta beste % 50 Zirkuluaren Osoko Bilkurak.

Herritarren Udal Kontseiluak bi urteko agintaldia izango du, eta automatikoki berritu ahal izango da bigarren agintaldi baterako, Zirkuluaren Osoko Bilkurak agintaldia berritzeko balio gabetze-prozesurik edo Herritarren Batzarrerako deialdi-eskaerarik egin ezean.

Auzoko Zirkuluak egonez gero, Herritarren Udal Kontseiluak pertsona bat gonbidatuko du eratutako Auzo Zirkulu bakoitzeko.

Dagokien estatu-idazkaritzek esparru-araudi bat egingo dute Herritarren Udal Kontseiluen funtzionamendurako, EHKK onartua.

Honako eskumen hauek edukiko ditu Herritarren Udal Kontseiluak:

- Osoko Bilkurak edo Zirkuluen Kontseiluak onartutako ildo politikoari jarraipena ematea eta unean uneko egoeretara egokitzea.
- Ildo politiko hori gauzatzeko beharrezkoak diren udaleko arloak edo lantaldeak zehaztea, Udal Bozeramaileak proposatuta.
- Udaleko arloetako eta lantaldeetako arduradunak izendatzea eta ordezkatzeko, udal-bozeramaileak proposatuta eta Herritarren Udal Kontseiluak berak berretsita.
- Udalaren eta Zirkuluen eta Ahal Duguren beste organoen arteko harreman juridiko-finantzarioa antolatzea eta Antolakuntzako eta Finantzaketako arduradun bat izendatzea.

## Nafarroa

- Osoko Bilkurak edo Herritarren Udal Kontseiluak berak hartutako erabakiak betearaztea.
- Udal-mailako organoek hartutako erabakiak betetzen diren jarraipena egitea, eta antolaketak udalerrian behar bezala funtzionatzen duela zaintzea.
- Dagokion udalerriko udal-taldearekin koordinazio politikoa edukitzeko behar diren mekanismoak zehaztea, eta gehiengo sinplez aukeratzea, udal-taldeari, funtzionamendu-egiturei, bozeramailetzei eta erantzukizun horiek beteko dituzten pertsoneri entzun ondoren.

## 12. artikulua. Udal-bozeramaileak

Udal-bozeramaileek Ahal Duguren ordezkaritza publikoa eta instituzionala gauzaten dute udalerrian, bertako jarduerak koordinatzen dituzte, diskurtsoa koherentea dela bermatzen dute, eta Nafarroako eta Estatu mailako alderdiarekin koordinatzen dira.

Militanteek aukeratuko dute Osoko Bilkura batean, zuzeneko boto bidezko primarioetan. “Udal handien” kasuan, Herritarren Udal Batzarrean aukeratuko dira, lan politikorako plan bati eta udal-talde bati lotuta betiere.

Udal-bozeramaileek, Udal Herritarren Kontseiluarekin bat eginik, bi urteko agintaldi baterako aukeratu dira, eta automatikoki berritu daiteke bigarren agintaldi baterako, baldin eta ez badago abian baliogabetzeko prozesurik edo ez badago Zirkuluaren Osoko Bilkurak agintaldia berritzeko Herritarren Batzarra deitzeko eskaerarik.

### **5. titulua. Probintziaren eremua: zirkuluen sarea**

Ahal Duguren baitan komunikazio, antolaketa eta dinamizazio ona sustatzeko eta sostengatzeko, ezinbestekoak dira Nafarroako eta Estatuko Zirkuluen eta Herritarren Kontseiluen eta egituren arteko bitarteko egiturak; horien bitartez, eztabaidarako, proposamenak egiteko eta hurbileneko errealitatean esku-hartze soziopolitikoak gauzatzeko foroak jarriko zaizkie eskura ordezkariei.

Uharteak ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen kasuan, Nafarroa kasu, Zirkulu Sarek Nafarroako Herritarren Kontseilurako Zirkuluen bitartekariak hautatzeko gune gisa baino ez dute balioko, eskumen gehigarririk gabe, salbu eta Nafarroako Herritarren Batzarrak Nafarroa baino eremu txikiagoko lurralde-errealitate propioa eta, horrekin batera, politikaren arloko eskumenak ematea erabaki badu.

Nafarroako Zirkuluen sareak zirkuluen arteko sinergiak bultzatuko ditu, eta, horretarako, esperientziak partekatuko ditu; era horretara, zirkulu batean ondo funtzionatu duen ekintza bat beste batera eraman ahal izango da.

**Nafarroa**

Hautetsi diren aldetik, Zirkuluen Sarean parte hartzen dutenek Nafarroako Ahal Dugun eginkizun bat esleituta duten pertsona guztien baldintzak bete beharko dituzte.

### 13. artikulua. Definizioa, helburuak eta osaera

Zirkuluen Sarea tokiko mailaren eta Nafarroakoaren arteko espazio organikoa da. Nafarroako Herritarren Kontseiluak adostutako lurralde-eremu bat partekatzen duten zirkuluen topaleku, harremangune eta elkargune bat da. Izan daiteke probintziala edo eskualde artekoa, lurralde-errealitate politikoari erreparatuz betiere.

Bi norabideko komunikazioa izango da Nafarroako Herritarren Kontseiluaren, Koordinazio Kontseiluaren, Nafarroako Koordinatzailearen eta zirkulu batzuen eta besteen artean.

14., 15. eta 16. artikulua ez dira Nafarroan aplikatuko, probintzia bakarreko Foru Erkidegoa baita.

#### **6. titulua. Nafarroako esparruari buruz**

### 17. artikulua. Herritarren Batzarra: definizioa, funtzioak eta deialdia

Nafarroako Herritarren Batzarra Ahal Dugun (dagokion lurralde-eremuan) izena emana dutenek osatzen dute, eta Batzarra da autonomia-erkidego bakoitzeko erabaki-organo gorena.

Batzarraren erabakiak lotesleak izango dira, eta Herritarren Batzarrak berak edo lurralde-eremu handiagoko beste batek baino ezingo ditu ezeztatu, lurralde-politikari dagokionez garrantzia duten gaiei edo alderdiaren ildo estrategikoari eragiten dietenean.

Izena emana duten pertsonak askatasun osoz erabakiko dute zein lurralde-eremutan eman nahi duten izena eta botoa emateko eskubidea erabili, baina ezingo dute aldi berean leku batean baino gehiagotan izena eman, kanpoan bizi diren pertsonak izan ezik, horiek beren ohiko bizilekuan eta/edo jatorrizko autonomia-erkidegoan edo udalerrian eman ahalko dute izena.

Nafarroako Herritarren Ohiko Batzarra gutxienez hemezortzi hilabetean behin elkartuko da, eta gehienez ere lau urtean behin. Lurraldeko ildo estrategikoari buruzko erabakiez arduratuko da: Nafarroako Koordinakundearen edo Nafarroako Koordinatzailearen hautaketa, Nafarroako Herritarren Kontseiluaren eta Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordearen osaera. Proiektuaren koherentzia ziurtatzeko, elkarri lotuta eta prozesu berean egingo dira

## Nafarroa

hautaketak, Estatuko Antolaketako Idazkaritzarekin koordinatuta betiere.

Ahal Dugun, dagokion lurraldean, izena eman duten pertsona guztiek izango dute Nafarroako Herritarren Ohiko Batzarrean parte hartzeko eskubidea.

Nafarroako Herritarren Batzarra modu iraunkorrean irekitzat joko da dagokion lurraldean garrantzi politiko berezia duten gaiei buruzko erabaki-prozesuak eta kontsulta lotesleak egiteko. Honakoek deitu ahal izango dute:

- Nafarroako Koordinatzailea edo Nafarroako Koordinazio Kontseilua.
- Estatuko Herritarren Kontseiluaren gehiengo absolutua.
- Ahal Dugun izena emana dutenen % 25a.

Nafarroako Herritarren Batzarrearen eskumen eskusiboa eta besterenezinak izango dira:

- Ahal Duguren ildo politiko orokorrak eta printzipio programatikoak lurraldera nola bideratzen diren zehaztea.
- Nafarroako Koordinatzailea hautatzea eta baliogabetzea.
- Dokumentu politikoa, Antolamenduari buruzko dokumentua, Feminismoen dokumentua eta Arrazakeriaren aurkako dokumentua onartzea, bai eta horien gaineko aldaketak ere.
- Nafarroako Herritarren Kontseilua osatzen duten pertsonen ehuneko bat aukeratzea eta baliogabetzea, Zirkuluetako loturen bidez aukeratutako ehunekoa izan ezik.
- Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea aukeratzea eta baliogabetzea.
- Dagokion lurralde-eremuko hauteskunde-prozesuei dagozkien behin betiko hauteskunde-programak onartzea (partaidetza bidezko lantze-prozesu baten ondoren), goragoko lurralde-ordenako batzarrek onartutako programa-printzipioei aurka egin gabe.
- Dagokion lurralde-eremuko hauteskunde-prozesuetan parte hartzeko formula politikoa erabakitzea, goragoko lurralde-mailako organoek onartutako ildo politikoari aurka egin gabe.
- Dagokion lurraldearen barruan Nafarroaren eremutik beheragoko hauteskundeetan parte hartzeko esparru-irizpideak ezartzea.

## Nafarroa

- Dagokion lurralde-eremuko ordezkaritza-erakundeetarako kargu publikoak lortzeko hauteskunde-zerrendak primarioen bidez hautatzea.
- Dagokion lurralde-eremuko ordezkaritza-erakundeetarako, gobernu-erakundeetarako edo inbestidura-erakundeetarako hauteskunde aurreko edo hauteskunde osteko edonolako itun edo aliantza berrestea edo ukatzea, goragoko lurralde-ordenako batzarrek onartutako printzipio orokorrekin bat eginez.
- Dagokion lurraldearen barruan, Nafarroako eremutik beherako eremuetan itunak egiteko esparru-irizpideak ezartzea.

Nafarroako Herritarren Batzarrak onetsitako dokumentuak nabarmen kontraesanean badaude Ahal Duguren Estatuko Herritarren Batzarrak onetsitako dokumentuekin, Estatuko Herritarren Kontseiluak Estatuko Berme Demokratikoen Batzordearen aurrean aurkaratu ahal izango ditu dokumentu horiekin kontraesanean dauden edo lurraldean izena emandako pertsonen eskubideak mugatzen dituzten alderdi zehatzak.

Nafarroako Herritarren Ohiko Batzarrerako deialdia ez da aurrekoa egin eta hemezortzi hilabete baino lehenago egingo, eta, gehienez ere, lau urte iragango dira.

Era berean, honako hauek deitu ahal izango dute Batzarra:

- Nafarroako Koordinatzaileak edo Nafarroako Koordinazio Kontseiluak.
- Nafarroako Herritarren Kontseiluko gehiengo gaituak (3/5).
- Ahal Dugun izena emana duten pertsonen % 25ak.

Nafarroako Herritarren Batzarrak bere eskumeneko lurraldeari dagozkion gaiei buruzko erabakiak baino ezingo ditu hartu.

Nafarroako Herritarren Ohiko Batzarraren **antolaketa teknikoa** Nafarroako Herritarren Kontseiluari edo horretarako izendatzen den talde teknikoari dagokio, eta gutxienez hamabost egun lehenago deituko da.

Herritarren Batzarra izena eman duten pertsonak deitzen badute, Nafarroako Herritarren Kontseiluarekin koordinatu beharko dira, antola dezaten. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

Herritarren batzarrak behar bezala jarduteko funtsezko arauak Estatuko Herritarren Kontseiluak edo Koordinazio Kontseiluak –lehenengoak eskuordetuta– onetsitako araudi baten bidez finkatuko dira.

## 18. artikulua. Nafarroako Herritarren Kontseilua: definizioa, funtzioak eta deialdia

Nafarroako Herritarren Kontseilua da Ahal Duguren zuzendaritza politikoa bere lurraldean eztabaidatzeko eta erabakitzeko ardura duen organoa, Nafarroako Herritarren Batzarrean onartutakoarekin eta alderdiaren ildo estrategiko orokorrekin bat etorritz betiere.

Bi zati izango ditu: Herritarren Batzarrak hautatua bat eta zirkulu-sareek hautatua bestea.

Nafarroako Herritarren Kontseilua kide kopuru jakin batek osatuko du, aukera hauen barruan:

- Nafarroako Koordinazioaren postua betetzen duen pertsona.
- 16 kide hautesle Erkidegoetako Herritarren Batzarretan.
- Nafarroako Herritarren Kontseiluaren guztizkoaren % 20, 4 pertsona bitarte guztira, Zirkuluen Sareak izendatutako Zirkuluen Loturek osatuko dute, genero-parekotasuna izango dute, zirkulu desberdinetakoak izango dira –ahal izanez gero–, urtebeteko agintaldia izango dute, eta txandakatu egin da zirkuluaren eta loturaren jatorria, parte-hartzea handitzeko.

Nafarroako Herritarren Kontseiluak honako eskumen hauek edukiko ditu:

- Ahal Duguren ildo politikoa (Nafarroako Herritarren Batzarrak onartua) bultzatzea, alderdiaren ildo estrategiko orokorrekin bat etorritz betiere.
- Nafarroako Koordinazio Kontseiluak aurkeztutako urteko aurrekontuen proposamena onartzea edo baztertzea. Urtero egingo da, urtarrilean, nahiz eta abenduan zirriborro bat aurkeztu.
- Nafarroako Koordinazio Kontseiluak aurkeztutako ezohiko aurrekontuen proposamenak onartzea edo baztertzea.
- Hobekuntza teknikoa, eraginkortasuna eta efizientzia proposatzea Herritarren Biltzarreko hautetsi guztien kudeaketa-txostenaren aurkezpenean (kontuak ematea, jarduera-memoria, lan-planaren egoera eta egoeraren azterketa).
- Nafarroako Koordinazio Kontseilua osatzen duten pertsonak izendatzea eta ordezkatzeko, Nafarroako koordinatzaileak proposatuta, Nafarroako Antolakuntza Dokumentuan aurreikusitakoaren arabera.

## Nafarroa

- Idazkaritzetako eta arloetako arduradunak izendatzea eta ordezkatzeko, Nafarroako koordinatzaileak proposatuta.
- Kontuan hartzea Nafarroako Berme Demokratikorako Batzordeari eskatu behar zaion egoerari buruzko aurretiazko nahitaezko txostena, diziplina-baja gauzatu aurretik honako kasu hauetan: Nafarroako Herritarren Kontseiluaren hiru deialdi arruntetara ez joatea eta ez justifikatzea; eraginkortasunik eza edo 6 hilabetez funtzio-galera jarraitua egotea; Lan Plana, Egoeraren Analisia eta Jardueraren Memoria ez aurkeztea edo Kontuak ez ematea.
- Estatuko Antolakuntza Idazkaritzarekin batera, udaletako eta Nafarroako hautagaitzak hazteko, ezartzeko eta garatzeko helburuak zehaztea.
- Berehalako eta behin betiko akordio eta neurri zuzentzaileak ezartzea, ziurtatzeko Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordeak ez duela bere organoaren kanpoko erasorik jasaten bere independentziari dagokionez, eta ekintza eraginkor eta egonkor bat gauzatzeko behar diren baliabide guztiak dituela.
- Nafarroako Herritarren Kontseiluko hautetsi bakoitzaren barne-erabilerarako sare informatiko edo telematiko bat aktibatzea, aktak, txostenak, kontu-emateak, memoriak, lan-planak eta abar argitaratzeko. Nolanahi ere, maila bakoitzean onartutako akten kopia bat egoitzan artxibatuko da, eta zuzenean interesatuta daudenek kontsultatu ahal izango dute.
- Adostasuna izango da NHKn eta bertako batzorde edo lantaldeetan erabakiak hartzeko ohiko metodoa, eta funtsik gabeko desadostasunen aurrean, edo, egokitzapen edo negoziazio baten ondoren, desadostasunak bere horretan jarraituko balu eta desadostasun hori parte hartzaileen % 12tik beherakoa balitz, desadostasunak ez dira kontuan hartuko erabakian.

Nafarroako Herritarren Kontseilurako deialdia egiteko, beharrezkoa izango da:

- Nafarroako Koordinatzailearen edo Koordinazio Kontseiluaren erabakia.
- Koordinazio Kontseiluaren erabakia Nafarroako Herritarren Kontseiluaren % 25ek eskatuta.
- Koordinazio Kontseiluaren erabakia, Lurraldeko Ahal Dugun izena emana dutenen % 25ek eskatuta.
- Herritarren Kontseilua eratzeko eta haren erabakiak baliozkoak izateko gutxienezko quorumak ezin du parte

## Nafarroa

hartzaileen % 33tik beherakoa izan Nafarroako Herritarren Batzarrean hautesle direnen artean (6 pertsona).

Edozein dela ere antolaketa, Nafarroako Herritarren Kontseiluek gutxienez Feminismoen eta Berdintasun Politiken Idazkaritza bat eta Arrazismoaren Aurkako Idazkaritza bat izango dituzte.

Nafarroako Herritarren Biltzarrean hautatuak izan diren Nafarroako Herritarren Kontseiluko kideek kargua utziko dute, baldin eta Nafarroako Herritarren Batzarra deitu bada bertako hautesleak hautatzeko, kargua utzi bada, ezgaitasunik badago, hil bada, edo organo horretako kide izateko eskubidea ematen zion jatorrizko izaera galdu badu.

Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordeak txosten labur bat igorriko dio Nafarroako Herritarren Kontseiluari, eta txosten horrek, loteslea ez bada ere, baliogabetzeko arrazoiak bermatuko ditu.

Nafarroako Herritarren Kontseilua hilerok bilduko da ohiko bileran, eta, ahal dela, egun eta ordu finko bat zehaztuko du, eta aldez aurretik landuko ditu talde, batzorde edo idazkaritzetan aztertu beharreko gaiak.

## 19. artikulua. Nafarroako koordinazioa

Nafarroako koordinatzailea Nafarroako Herritarren Batzarrak sufragio aske eta zuzenaren bidez hautatuko duen kide bakarreko organoa da.

Hautagaitzak Estatuko Herritarren Kontseiluak onartutako Nafarroako Araudian ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira. Araudi horrek, baldintza gisa, Ahal Duguren gutxienez sei hilabeteko antzintasuna izatea eskatuko du.

Nafarroako koordinatzailearen eskumenak izango dira:

- Ahal Duguren ordezkaritza politikoa eta instituzionala gauzatzea lurraldean, haren jarduerak koordinatuz.
- Herritarren Kontseilua eta Koordinazio Kontseilua koordinatzea.
- Nafarroako Herritarren Batzarrerako deialdia egitea.

## 20. artikulua. Koordinazio Kontseilua

Nafarroako Koordinazio Kontseilua da Nafarroako Koordinazioa eta Nafarroako Herritarren Kontseilua babesten dituen organoa izaera politikoko eta barne-koordinazioko lanak egiteko. Nafarroako

## Nafarroa

Herritarren Kontseiluak hartutako erabakien eskumen betearazlea gauzatzen du.

Nafarroako Koordinatzailearen proposamenez izendatuko da, Nafarroako Herritarren Kontseiluko kideen artean, eta Nafarroako Herritarren Kontseiluak berretsiko du. **Osaerari dagokionez, % 50 emakumeak izango dira gutxienez, eta migratzaileak edo arrazializatuak % 18 gutxienez.** Kontseilu horrek ezarritako idazkaritzetan antolatuko da, Herritarren Kontseiluak berak esleitzen dizkien eginkizunekin.

Honako hauek izango dira Koordinazio Kontseiluaren **funtzioak**:

- Herritarren Batzarretan adostutako ildo politikoa aplikatzea eta unean uneko egoeretara egokitzea.
- Herritarren Kontseiluak eta Herritarren Batzarrak hartutako erabakiak betearaztea.
- Koordinazio Kontseiluaren bileren gai-zerrenda definitzea.
- Nafarroako Herritarren Kontseiluak eskuordetzan ematen dizkion eginkizun guztiak bere gain hartzea.
- Nafarroako organoen akordioak betearazten diren jarraipena egitea, eta erakunde osoaren funtzionamendu egokia zaintzea.
- Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordeak bere independentziari dagokionez kanpoko erasorik jasaten ez duela eta ekintza eraginkor eta egonkor bat gauzatzeko behar diren baliabide guztiak dituela ziurtatzeko ekintzak egitea.

## 21. artikulua. Kargu organikoen baliogabetzea

Baliogabetzeko erabakia hartzeko, Nafarroako Herritarren Batzarra ezin izango da dagokion kargua edo organoa hautatu eta hemezortzi hilabete baino lehenago deitu.

Deialdi hori egiteko eskumena dute:

- Nafarroako Koordinatzaileak.
- Nafarroako Herritarren Kontseiluaren gehiengo absolutuak.
- Ahal Dugun izena emana dutenen % 25ek.

*Nafarroako koordinatzailea* baliogabetu ahalko da, hura izendatu zuen Nafarroako Herritarren Batzarrari baliogabetzeko kontsulta lotesle bat eginez gero.

Nafarroako Koordinazio Kontseiluko edo *Nafarroako Herritarren Kontseiluko* kide baten agintaldia baliogabetzeko prozesuari hasiera

**Nafarroa**

emateko, beharrezkoa izango da lurralde horretan Ahal Dugun izena emanda dauden pertsonen bosten baten bermea aurkeztea. Nafarroako Koordinazio Kontseiluko kideen ezeztatze-erreferendumak banakakoak izango dira soil-soilik; Nafarroako Herritarren Kontseiluak edo Herritarren Batzarrak ezeztatu ahal izango ditu horiek.

Nafarroako Herritarren Kontseilua arduratuko da, elkargo moduan jardunez, baliogabetzeko hauteskunde-prozesua antolatzeaz.

Zirkuluen loturen kasuan –urtero izendatuak dagokion lurraldeetatik–, Nafarroako Zirkuluaren Sarean ezeztatu ahal izango dira, bozketa bidez.

Zirkulu batek gehiengo osoz ezezta dezake Nafarroako Herritarren Kontseiluaren lotura.

Nafarroako Herritarren Kontseilua osatuko duten pertsonak Herritarren Batzarrean hautatuak izan ondoren, horietakoren batek organoa uzten badu, ezin izango da haren postua ordeztu.

Nafarroako organoen funtzionamendu normala eragozten bada, Estatuko Antolakuntza Idazkaritzak, lurraldean dauden organoak entzun ondoren, Estatuko Koordinazio Kontseiluari proposatuko dio Lantalde Tekniko bat osa dezala; hura izango da Ahal Duguren behin-behineko ordezkari lurraldean, eta bere gain hartuko ditu bere lurralde-eremuko organo guztien funtzioak, Estatuko Koordinazio Kontseiluak berariaz mugatutakoak izan ezik.

Nafarroako Herritarren Batzarreko organo hautetsiak ezeztatzeko, aldez aurretik eskatuko zaio txostena Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordeari, egoera bere osotasunean jaso dezan, planteatutako arazoaren ordezeko metodo edo konponbide posibleak eman ditzan eta erakundean hutsuneak edo gabeziak saihestu ditzan.

**8.1. titulua. Gatazkak konpontzea**

Ahal Duguren edozein lan-eremutan modu naturalean sor daitezkeen gatazka politikoak edo elkarbizitzari dagozkionak bide politikoen eta lankideen arteko bitartekaritzaren bidez konpondu behar dira, lehenik.

Hori dela eta, bitartekaritza-prozedura arautuak ezarriko dira. Gatazkak sortzen diren eremuan bertan azkar konpontzeko pentsatuta daude, jarrerak ez gaiztotzeko, gure lan-eremuen kalitate demokratikoa hobetzeko eta Berme Demokratikoen Batzordeen blokeo organikoa eragozteko. Maila desberdinetako organoek bitartekaritza-mekanismoak izan beharko dituzte, eta horietan lehenetsi beharko da Ahal Duguren Estatutuak eta Kode Etikoa betetzen direla; adiskidetasunezko konponbideak bilatu beharko dituzte, zintzotasunez eztabaidatzeko giro atsegina sortu eta liskarraren eta erantzun diziplinarioaren kultura saihestu.

## 27. artikulua. Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea: definizioa, osaera, funtzioak eta funtzionamendua

Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea organo inpartziala da, eta independentea. Ahal Dugun izena emana dutenen eskubideak errespetatzen direla eta erakundearen oinarrizko printzipioak eta funtzionamendu-arauak betetzen direla zaintzeaz arduratzen da, alderdiaren araudian ezarritakoaren arabera; horrez gainera, **Bitartekaritzaren eta Zaintzen alorrean** ere jardungo du.

Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea dokumentu honetan aurreikusitako baldintzen arabera eratuko da; eta Kode Etikoa aurreikusitako bateraezintasunen araudiko parametroen barruan ezarriko da.

Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea 3 titularrek eta 3 ordezkok osatuko dute, eta horiek ahalmen osoz ordezkatuak dituzte aurrekoak, haiek ezin dituztenean beren eginkizunak bete.

Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordeko titular batek bere eginkizunetik aldi baterako urruntzea eskatzen badu, ordezko batek bete ahal izango du aldi baterako baja, ondorio guztiekin, hasieratik beretik.

Kideak Herritarren Batzarrak aukeratuko ditu zuzenean, bere araudiaren arabera. Ahal Dugun gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna eduki beharko dute, eta hautagai-zerrenden artean hautatuko dira, boto zuzenaren bidez, eta zerrenda irekietan bildutako hautagai-zerrenden artean; zerrenda irekiak badira ere, ez dute zertan osoak izan.

Berme Demokratikoen Batzordeko kide izango dira boto gehien lortu dituzten 6 pertsonak, eta titular izango dira lehenengo hirurak. % 50 gutxienez emakumeak izango direla bermatu behar da.

Ordezko izango dira boto gehien lortu dituztenen hurrenak. Ordezkoak eskubide osoko kideen ordezko izango dira, haiek kargua uzten badute, dimisioa ematen badute, kanpoan badira edo hiltzen badira, aurreko paragrafoan ezarritako irizpideei eustea ahalbidetzen duen hurrenkeran.

Alderditik kanpoko agenteekiko independentzia eta inpartzialtasuna ziurtatzeko, Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordeak ez ditu ez titular gisa jarriko, ezta ordezko gisa ere, gobernu batean kargu exekutiboak betetzen dituzten pertsonak, edo izendapen askez exekutiboan postuak betetzen dituztenak, hala nola zuzendaritzetan,

## Nafarroa

buruzagitzetan edo gerentzietan, edo Nafarroako Gobernuan goi-karguak dituztenak.

Berme Demokratikoen Batzordeak estatutuetan ezarritako eginkizunak betetzeko behar den gutxieneko kide-kopurua izan beharko du uneoro. Nolanahi ere, Berme Demokratikoen Batzordea automatikoki desegingo da ez denean gutxienez hiru kide edukitzera iristen; era berean, deseginda geratuko da bermatzen ez bada gutxienez % 50 emakumeak izango direla.

Batzordeak organo arina eta eraginkorra izan behar du, eta helburu nagusia alderdiaren barne-araudia betetzen dela zaintzea da, bai eta Ahal Duguko kideen eskubideak babestea ere. Horretarako, eraginkorra izan behar du erakundearen dauden gatazkak konpontzeko.

Organo horrek ebazpen arrazoituen bidez egingo ditu adierazpenak, eta prozedura arina eta bermatzailea beteko du, bidegabeko atzerapenak saihesteko. Organoaren eraginkortasunik eza izan daiteke hura desegiteko arrazoia.

Baldin eta Nafarroako Berme Batzordea bertan behera geratzen bada, ez dituelako betetzen ondo funtzionatzeko bete behar dituen betebeharrak, kide batek dimisioa aurkeztu duelako edo organoaren eraginkortasunik ezaren ondorioz, organo tekniko bat eratuko da, behin-behinean, hurrengo Nafarroako Herritarren Batzarra egiten den bitartean. **Organo teknikoa** 3 kidek osatuko dute, Nafarroako Koordinazio Kontseiluak aukeratuta, Nafarroako Koordinakundearen edo Nafarroako Herritarren Kontseiluaren proposamenez. Genero-zuzenketa errespetatu beharko du, prozedurak behar bezala garatzen direla bermatzeko, eta, era horretara, saihestu egingo da gaiak geldiaraztea, segurtasun juridikoaren mesedetan.

Berme Demokratikoen Batzordeko kide izatea bateraezina da beste edozein kargu organikotako kide izatearekin. Bateraezintasunen Araudiak Berme Demokratikoen Batzordeko kideei eta haien ordezkoei aplikatu dakiekeen beste edozein bateraezintasun zehaztuko du.

Berme Demokratikoen Batzordeak eginkizun hauek beteko ditu:

- Izena emana duten pertsonen arteko eta Ahal Duguko organoen arteko espedienteetan eta gatazketan bitartekari lanak egitea, espediente berreslea abian jartzeko gaituta dauden organoek eskatuta.
- Dagozkion funtzioei buruzko araudi bat egitea. Haren onspena Estatuko Herritarren Kontseiluari eta/edo Nafarroako Herritarren Kontseiluari aurkeztuko die, dagokionaren arabera.

## Nafarroa

- Bere eskumen-eremuaren barruan dagoen eta Alderdiaren barne-araudiak esleitu dion beste edozein gai konpontzea.
- Irizpenak ematea, alderdiko organoek eskatuta, organo horien jarduna edo erabakiak moteltzen edo eragozten dituzten blokeo-egoerak konpontzen laguntzeko.
- Norberaren ekimenez, Nafarroako Berme Batzordean adostasunezko iritzia eta irizpenak ematea, **Bitartekaritza eta Zaintza arloan**, Herritarren Batzarrean izena eman dutenen, militanteen edo hautetsien barne-giro politikoan edo sozialean antzematen ari diren arrisku edo kalteei buruz, bai iraganekoak bai gaur egungoak.
- Nafarroako Berme Demokratikoen batzordeko kideak Nafarroako Koordinazio Kontseiluaren eta Nafarroako Herritarren Kontseiluaren bileretara joan ahal izango dira, Nafarroako Ahal Duguren Bitartekotzari eta Zaintzari buruzko ikuspuntuak emateko, eta Nafarroako Ahal Duguren barneko giroa hobetzeko aholkuak eman ahal izateko.
  - Bitartekaritza Batzordeak gaur egun gatazkak dituzten pertsonen mapa egingo du, eta berehala hasiko da alderdia osatzen.
  - Batzordeko kideak baztertera geldituko dira berekin lotura duten pertsonen arteko gatazketan.
  - Bitartekaritza Batzordeak barne-gida bat egingo du arazoak konpontzeko.
  - Batzorde guztiek bi norabideko komunikazioak izango dituzte, jokabide edo hizkera oldarkorrek saihesteko barneko edo kanpoko bileretan eta jakinarazpenetan.
  - Nafarroako Ahal Dugun egiten den bilera orotan, gizarte-sareetako taldeetan edo edozein arlotako batzarretan, batzordekide batek gutxienez, edo, halakorik ezean bertan den norbaitek, **Bitartekaritza eta Zaintza** trebatua izan beharko du, parte-hartzaileen arteko harmonia eta errespetua bermatzeko, suhertasunak edo grina pertsonalak ezin baitu inoiz jarrera toxikorik, larderiarik edo jazarpenik justifikatu.

Berme Demokratikoen Batzordeak antolaketa-dokumentu honetan deskribatutako prozeduren arabera jardungo du, prozedura arin eta malgu baten bidez. Prozedura horiek araudiaren arabera gauzatuko dira, bai eta zehapen-prozedura ere.

Kode Etikoa eta aplikagarriak diren arauen eta protokoloen bitartez osatutako araudia ebatzi edo deuseztatuko du, estatutuek diotenari eta unean-uneko legeari jarraituz.

Nafarroako Berme Demokratikoen Batzordea organo gisa osorik ezeztatzeko, ordezkioak barne, hura hautatu zuen Nafarroako Herritarren Batzarrean aurrean baliogabetzeko kontsulta lotesle bat deitu beharko da, baliogabetzeko gutxieneko epea igarota eta lurraldeko Ahal Dugun izena emandako pertsonen bosten baten bermea aurkeztuta.

Baldin eta Nafarroako Berme Demokratikoen Batzorde bat bertan behera gelditzen bada bere eginkizunak betetzea eragozten duen beste edozein arrazoirengatik, Estatuko Berme Demokratikoen Batzordeak bere gain hartuko ditu, bere araudiaren arabera, baldin eta **Nafarroako Herritarren Kontseiluarentzat** ezinezkoa bada **organo tekniko bat** osatzea, hurrengo Herritarren Batzarra egin arte. (ikusi 29. orrialdeko lehen paragrafoa).

### **8.2. titulua. Proiektua, konpromisoa, karguak eta funtzioak**

Nafarroako Ahal Duguren antolakuntza-egitura osoak eta kargu hautetsiak betetzen dituzten pertsonak, edozein mailatakoak direla ere, edo udal edo sektore mailakoek, agintaldia hasi baino 3 hilabete lehenago eta urtearen amaieran, txosten bat aurkeztuko dute, dagokion arlo, organo eta/edo funtziori buruz, alderdiaren barruan.

Txosten hori organo bakoitzak taldean aurkeztu ahal izango du.

## **28. artikulua. Kontu politikoak eta sozialak emateko elementuak**

**Kontu-ematea** sendoa izan dadin, beharrezkoa da **lan-plana** eguneratuta edukitzea, eta, horretarako, egunera eduki behar du **jarduera-memoria**.

- **Egoeraren azterketa:** ezinbestekoa da abiapuntuko ingurunea eta egungoa azaltzea, AMIA txosten baten eta horri lotutako lurraldearen mapeatze baten bidez.
- **Jarduera-memoria:** jardueren, egintzen eta horiek egindako lekuen agenda, esaterako elkarrizketak, bidaiak, bisitak, bilerak, etab...
- **Laneko plana:** helburuen eta metodoen zerrenda eta horiek lortzeko baliabideak, ekintza-plana eta zeregin zehatzak, eta ikasitako ikasgaiak.
- **Kontuak ematea:** Nafarroako Ahal Duguren proiektu politikoaren beharren, misioaren eta helburuen eta lortutako emaitzen arteko autoebaluazioa eta alderaketa.

Txosten horien eskema eta xehetasun maila Nafarroako Herritarren Kontseiluak ezarriko ditu, Nafarroako Koordinazio Kontseiluak proposatuta, karguaz jabetu baino hiru hilabete lehenago, Herritarren Kontseiluaren lehen bileraren datatik aurrera.

Konpromiso horiek nahitaez bete behar dituzte erakundeetan beren postua lortzen duten kargu publikoek, agiri horiek Nafarroako Herritarren Batzarrean onartu ondoren.

## Nafarroa

**9. titulua. Finantza-kontrola**

Ahal Duguk gizartearekin arlo horretan hartutako konpromisoari lotuta jarraitzen du. Hori dela eta, gure gardentasun-atarian kontabilitatearen arloko barne-jokabidea, urteko kontu bateratuak eta haien memoria, jasotako dirulaguntzen zerrenda, barne-kontrolako txostena eta gure kargu publikodunek egindako ekarpenen zenbateko osoa jasotzen jarraituko dugu, lurraldeka, urteko memoria ekonomikoan islatzen den bezala. Kontabilitate-egoeraren eta egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren gardentasun orokorragorantz jo behar dugu, garrantzi handiagoa emanez erakunde osoari.

Herritarren Kontseiluak beren urteko aurrekontuak modu independentean prestatzen jarraituko dute, eta, Estatuko Finantza Taldearekin batera, gastuak diru-sarrerei egokitzen zaizkiela eta indarrean den legeria eta araudia betetzen direla zainduko dute.

## 29. artikulua. Aurrekontu ekonomikoa eta finantza-kontuak ematea

Ekitaldiaren amaieran, Nafarroako Herritarren Kontseiluak urteko aurrekontuak modu independentean prestatu ahalko ditu; bertan, Kontseiluaren finantza-egoeraren berri emango da, eta diru-sarrerei eta gastuei buruzko xehetasunak emango dira.

### *Aurrekontuei dagozkien arauak*

Nafarroako Herritarren Kontseiluaren urteko aurrekontuak iraunkortasunaren eta errealismoaren printzipioen eta irizpideen arabera arautuko dira.

- Diru-sarreraren eta gastuen zenbatespena eta gauzatzea:
  - » Nafarroako Herritarren Kontseiluak militantziaren kuotetatik, kargu publikoen ekarpenetatik eta/edo udal-taldearen ekarpenetatik jasotako udal diru-sarrerak kudeatzeko konpromisoa du.
  - » Nafarroako Herritarren Kontseiluak kudeatu beharko ditu berezko kudeaketa-ahalmenik ez duen udal-organoaren gastu eta diru-sarrerak. Kontrol-planak eta -aurrekontuak egingo dituzte udal-organo horientzat, baliabideak izan ditzaten.
- Aurrekontuaren kontrola:
  - » Urtearen amaieran, aurrekontu-partiden bilakaerari buruzko txostena egin ahal izango zaio Nafarroako Herritarren Kontseiluari, eta txosten hori izango da hurrengo aurrekontuaren oinarria.

**10. titulua. Xedapen iragankorrak**

Aurreko taldetik Nafarroako Herritarren Batzarrak hautatutako talde berrirako trantsizioan eta/edo botere-transferentzian izandako gorabeheren aurrean, eta Nafarroako Ahal Duguren antolaketan eta egituraren behar bezalako

## Nafarroa

normaltasuna bermatzeko arlo eta esparru guztietan, **hiru fasetan** egingo da hori.

### 30. artikulua. 1. fasea. Azterketa eta lehenengo ekintzak

Nafarroako Herritarren Kontseiluak aztertu eta diagnostikatuko du Nafarroako Herritarren Batzarrak onartutako dokumentu politikoan, antolaketa-dokumentuen, feminismoen eta LGTBIGA+en eta arrazakeriaren aurkako dokumentuen elementu garrantzitsuen egoera, eta egoera bakoitzari egokitutako **ekintza-plan bati** ekingo dio, Ahal Duguren proiektu politikoari eta antzemandako beharrei dagokienez, dokumentu honen **8. tituluarekin** bat eginez.

Erronkei eta zailtasunei dagokienez, informazio garrantzitsua duen buletin bat bidaliko zaie izena emana dutenei.

Nafarroako organo eta funtzioen egitura osoa berrituko da, Nafarroako Herritarren Batzarrak onartutakoaren arabera.

Nafarroako Herritarren Batzarrak eta Ahal Duguren proiektuak onartutako dokumentuen edukia betetzeko, Nafarroako Herritarren Kontseiluak noranzko biko komunikazio-bideak berrezarriko ditu honako hauekin:

- Aurretik udalaren edo foruaren eremuan kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak.
- Ahal Duguren proiektuarekin eta giza eskubideen defentsarekin bateragarriak diren Gizarte Mugimenduetan parte hartzen duten eta izena emana duten pertsonak.
- Zirkulu aktiboa duten edo ez duten udalerrri guztietako militanteak eta izena emana dutenak, beharrezkoak diren akordioak eta ekintzak ezartzeko, hala behar denean.
- Estatu mailako egitura, Nafarroako baliabide eta konpromiso instituzionalei eta hedadura militantekoei dagokienez.

### 31. artikulua. 2. fasea. Agintaldiaren bigarren hiruhilekoa

Nafarroako Herritarren Kontseiluak martxan dauden ekintzak berrikusi eta ebaluatuko ditu, edo, behar izanez gero, neurri berriak ezarriko ditu, edo daudenak zuzenduko ditu, 2025eko abendura arte,

## Nafarroa

errendimendu osoz ari diren eta aktiboan dauden zirkulu guztiak indartuz eta berretsiz.

Nafarroako Zirkuluen Saretik datozen kideekin ere osatuko du Herritarren Kontseilua, eta gainerako kontseilarien eskubide eta betebeharrak izango dituzte funtzionamenduari dagokionez.

## 32. artikulua. 3. fasea. Normalkuntza

Egoera normalizaturik, Nafarroako Herritarren Kontseiluak idatziz dokumentatuko du eta 2026ko urtarrilean aurkeztuko die izena emana dutenei, militanteei, zirkuluei eta Herritarren Estatuko Kontseiluari:

- Alderdiaren egoeraren bilakaerari eta izena eman dutenekin, militanteekin, zirkuluekin, erakundeekin, gizarte eragileekin eta gizarte mugimenduekin dagoen harremanari buruzko txostena.
- Organo bakoitzaren kontu ekonomiko, tekniko, politiko eta sozialak ematea: Koordinazioa, Koord. Kontseilua, Herritarren Kontseilua, Nafarroako Kontseilu Nagusia, Zirkuluen Sarea.
- Urteko balantze ekonomikoa.
- Hurrengo urterako aurrekontu ekonomikoari buruzko txosten bat aurkeztuko da.
- Azterketa bat, helburu eta lehentasun sozialei eta politikoei, eskura dauden baliabideei eta alderdian izena emana dutenekin, militanteekin eta Nafarroako gizartearekin dituen betebeharrak aurre egiteko aurreikus daitekeen egoerari buruzkoa.
- Informazio hori luzea eta konplexua izan badaiteke ere, txosten laburtu bat egingo da, eta buletin baten bidez bidaliko zaie izena emana dutenei.
- Informazioa emateko batzar presentzial bat egingo da urte amaieran, militantziak galderak egin diezazkien alderdiko organoei.
- Euskarara itzuliko dira Nafarroako Herritarren Batzarrak onartutako Dokumentu Politikoa, Antolamenduari buruzko dokumentua, Feminismoak eta LGTBIQA+ dokumentua eta Arrazakeriaren aurkako dokumentua.

